

GIPUZKOAKO HAUZO ELKARTEEN ARTEKO HARREMANAK

Zarauzko bilera. 1978, maiatzak 6

Bildu garenak: Arrasate, Mondragonesa del hogar, Parte Zaharra, Urdania, Bergara, Gure Herria, Ibaeta, Amara Berri, Gros, Intxaurren, Hauzo Lan Sasoeta, San Blas, Loiola, Kasko Zaharra, Zelai Ondo.

Aurreko akta onhartzen da. Amara Berriko Urrut. zuzentzen da, 465369.

EGUNEKO ZERRENDA

- 1.- Zarauzko hauzo elkarteek hartzen dute koordinatzaile lana. Hiru bileretarako.
- 2.- Herritarren hamabostaldia edo kontzientziatze kanpaina zehazten:
  - a) Hamabostaldiaren egunak aldatzen dira, fuboleko mundialak izango duten eragina kontutan hartuz. Ekainaren 24tik uztailaren 7ra izango da hamabostaldia. Herri bakoitza bere modura antolatuko da.
  - b) Pegatinak eta kartelak, Bozetoak eta diru balioak azaldu ondoren, kartelak txuri deltezez egitea onhartzen da. Pegatinen margoei buruz komisioak erabakiko du. Informazio guztia: Javier Bakaikoa, Avda. Madrid 22-4º B Donostia. Urrut. 457687; ordu letik 2t' erditara eta 7 tatic aurrera.
  - c) Aldizkaria maiatzaren 20 arteraino luzatzen da lanak bidaltzeko epea. Lana hauek gehienez hiru folio izango dute, arpegi batez eginak, eta espazio batetara. Aldizkariaren azken azalean soilik, onhartzen da aldizkaria ordaintzeko plubizitatea ipintzea. Finantzeaketari buruz, aldizkari eta pegatinentzat minimo bat ipintzea onhartzen da eta horti gora jasotzen dena, probintzia mailako kutxa batetara pasatzea. Minimo hori komisioek ipiniko dute, diru arduradunek alegia. Aldizkari kopurua. 15.000 inguru. Mondragoe (650), Bergara (100), Andoain (600), Zarautz (500), Irun hondarrabi (1.500), Lasarte (200), Eibar (1.500), Tolosa (1.500). Propaganda kontu guztia zuzenbide hauetan biltzen da: HAUZOAK, calle Pescaderia, 4 Parte Vieja, San Sebastián. 6tatik 9tara. Urrut. 421086 edo 361273.
  - d) Kanpaina nola dijoan herriz herri.
    - Andoain: hitzaldiak, eraikuntza, sanitate, kultur, instituzionalizazio, sunormalak...
    - Zarauz: ezer zehaztu gabe oraindik.
    - Donostia: Aurrez azaldu zuen egitarau bera.
    - Eibar: Haurren antzerkia, berbenak, sanitateari buruzko zinea, ipui azalketa, muralak...
    - Arrasate: eraikuntza, sanitate, alkaldi tenentziak, hauzo juntak, herritar mugimendua, instituzionalizazioa.
    - Tolosa: Plan Orokorra, hitzaldiak...
- 3.- Eguneko zerrendatik at.
  - Tolosako San Blasek Murcian egingo den bilera bati buruz berri ematen du, bilera hau, gero estatal mailan egingo den batzar baten preparazioa da.
  - Hontaz erabakitzen da:
    - ondorioen informazioa eskatzea.
    - ordezkari ofizialik ez bidaltzea bilera hontara. Nahiz eta inork nahi badu pertsonalki joan, ongi ikusten da.
    - Euskadiko beste lurraldeekin hontaz harremanetan ipintzea.
- 4.- DYAK informatzen du.
- 5.- U-RENGO BILERA: Zarautzen, Liburutegian, maiatzaren 20an. 4, 50tan.
  - GALIAK: 1) kanpainaren informaketa
  - 2) Euskadiko Lurraldeekin harremanak
  - 3) Murciako informaketa (balego).